

5.a	JARDUERA FITXA	ERABILITAKO ENERGIAK EZAGUTU – ENERGIA KATEA	
------------	---------------------------	---	---

<i>Ezagutzak</i>	<i>Maila :</i>	<i>Gaitasunak</i>
Energia katea : elikadura, banaketa, biltzea, eraldaketa eta garraiatzea	2 (« badakit aipatzen»)	- objektu tekniko baten sartze-eneraiak eta ateratze-eneraiak identifikatu.
	1 (« badakit»)	- energia eraldaketak identifikatu.
	1 (« badakit»)	- objektu tekniko baten energia-katearen elementu ezberdinak identifikatu eta eskema estruktural baten bidez erakutsi.

Oinarri bateratua

3	Zientzia eta teknologia desmartxa erabili	Energia : forma ezberdinak forma batetik bestelako eraldaketak.
----------	--	--

Ebatzi behar den arazoa :

Eraiki nahi dituzun etxoletan energia beharrak izanen dira : baina nolakoak ote dira ? eta nola lortuko da behar den energia hornitzea ? Nola erabilia izanen da ?

1 Nolako energia beharko da ? Edo zergatik energia beharrezkoa izanen da zure oporretako etxoletan ?

Zein dira zure ustez energia behar horiek eta zertan erabiliko dira ? Zure lehenbiziko proposamenak hemen egin itzazu (zure etxean ikus dezakezuna adibidetzat har ezazu) :

Energia motak	Energiaren erabilera

2 Energia iturri ezberdinak


Bi energia iturri ezberdin dira :

- **energia berriztagarriak**
- **energia ez berriztagarriak**


Baina nola desberdintzen dira ?

Energia iturri **ez berriztagarriak** noizbait desagertuko dira erreserbak mugatuak direlako, **ez dira agortezinak**. Aldiz, energia **berriztagarriak** etengabe arraberritzen dira, **agortezinak dira**.

Energia ez berriztagarriak




Energia berriztagarriak



3 Etxe bat energiaz hornitu

Etxe batean, energia beharrak anitzak dira. Hona hemen etxe bat energiaz hornitzeko izan daitezken aterabideak :

- **banaketa sarea** (gas, elektrizitate)
- **upelen bidezko biltegiatzea** (fuel, gas)
- **auto hornikuntza** (eguzki panela, haize errota)



Irudian dauden informazioak baliatuz taula osa ezazu eskatutakoa etxe bakoitzarentzat zehaztuz :

	1. etxea	2. etxea	3. etxea
Tokian berean sortutako energia			
Hornikuntza sare baten bidez emandako energia			
Ekarritako eta bildutako energia			

Zein da bateriaren eta fuel upelaren betebeharra ?


4 Sartze energiak - ateratze energiak


Energia iturriak **erlaldatuz** energia mota hauek sor daitezke :

- **energia mekanikoa** (piezak mugiarazteko)
- **energia elektrikoa** (motor elektriko bat edo lanpa bat elikatzeke)
- **energia termikoa** (beroa ekoizteko)

Energia katea **ekintza** segida batez egina da hala nola **banatu, bildu, erlaldatu, transmititu**, osagai batzuen bidez gauzatua dena : **berogailua, galdara, upela, hodiak**.

Esaldi honetan dauden hitzak baliatuz eta azpi honetan dagoen eskema aztertuz, etxe baten **gas bidezko berokuntzaren energia katea** ondoko orrialdean osa ezazu :





Ikasi duzuna eta dakizuna erabiliz, azpiko taula hau osa ezazu :

Sartze energia	Objektu teknikoa	Ateratze energia
Energia elektrikoa	Lanpa	Energia termikoa
	Berogailu elektrikoa	
	Fuel-galdara	
	Haizagailua	
	Arropa garbigailua	
	Gasezko furnegoa	
	Leiho elektrikoa	
	Supazterra	



5 Energia elektrikoa ekoiztu eguzkiaren bidez

Ebatzi nahi den arazoa :



Zure etxolak elektrizitatez hornitu behar dituzu baina energia autonomia hobetu nahian eguzkiaren energia erabili nahi duzu elektrizitate behar horiek osoki estaltzeko.

Web gune honetan diren argibideak aztertu hobeki ulertzeko nola energia elektrikoa sortuko den eguzkiaren energiaren bidez (*fotovoltaikoa* atala) :

<http://www.eve.es/Aula-didactica/Infografias/La-energia-solar.aspx?lang=eu-ES>




Sortutako energia elektrikoa metagailuaetara eramana izanen da bildua izan dadin. Beharren arabera, etengailua erabiliz, kontsumo ttikiko lanpa piztuko da. Energia elektrikoa hari elektrikoan bidez banatua izanen da.



Web guneko eta orrialde honetako informazioak baliatuz, saia zaitetz halako instalazioaren energia kate hau osatzen hitz hauek (ekintzak) behar bezala kokatuz :

bildu - garraiatu - eraldatu - elikatu - banatu



- Zein da sartze energia ?
.....

- Zein da ateratze energia ?
.....

lanpari esker energia elektrikoa argi-energia bilakatzen da.

